

# MISS KARAOKE

Sormen prozesu baten erraiak

**Oier Guillan & Metrokoadroka**




**EHAZE-Antzerkizale elkarte**

info@ehaze.eus

<http://www.ehaze.liburuak.eus/>

**Izenburua:** ..... Miss Karaoke. Sormen prozesu baten erraiak  
**Egileak:** ..... Oier Guillan & Metrokoadroka  
**Hitzaurrea:** ..... Edurne Azkarate  
**Hitzostea:** ..... Javier Barandiaran  
**Argitaratzailea:** ..... EHAZE-Antzerkizale elkarteak  
**Ezaugarriak:** ..... Antzerkia  
218 orrialde. 14×22cm.  
**Hizkuntza:** ..... Euskara  
**Argitalpen data:** ..... 2021eko abendua  
**Lizentzia:** ..... Creative commons  
**ISBN:** ..... 978-84-09-35450-4

## Miss Karaoke



EHAZEren argitalpen honetan ez duzue aurkituko antzerki naturalistaren ez logikarik ez manerarik. Aldiz, Oier Guillanen *Arra. Arra-roa* (2010) eta *Mr. Señora* (2016) izenekoetan zeuden ideiak nahiz idazketa-estiloa antzemango dituzue. Ikuskizun honek hibridazio, identitate, auto-pertzepzioa, generoen auzia eta, halaber, antzezpenari buruzko gogoetak zentrifugatu zituen, betiere irudi poetiko, umoretsu eta kitsch-ak erabiliz.

Liburuan, Metrokoadroka kolektiboak Pez Limbo taldearekin batera taularatutako *Miss Karaoke* antzezlanaren bi bertsio daude eskuragai: jatorrizko testua eta oholtzara eraman zena, sormen prozesuari buruzko kronika mamitsu batekin batera. EHAZEek testuok irakurtzeko eta gozatzeko proposamena egiten dizue, antzerki-os-teak euskal antzerkiaren sisteman daukan tokiaren adierazle gisa.

## Oier Guillan Bermudez (Donostia-Orereta, 1975)

Idazlea, kazetaria, antzerkigilea. Hainbat liburu kaleratu ditu poesia, narrazio eta antzerkiaren arloetan, azkenak *VHS* (Susa, 2020), *Aire ikusezina* (Kutxa-Algaida, 2019) *Zauri Bolodia* (Txalaparta, 2018), *Mr. Señora* (Txalaparta, 2016), *Elkartasun basatia* (Susa, 2013), *Hura ez da lekua* (Txalaparta, 2012), *Herio heroi/Arra. Arra-roa* (Arteztblai, 2010), *Eskuen sustraiak* (Susa, 2009) eta *Ate hautsiak* (Arabako Foru Aldundia, 2008).

2008tik Metrokoadroka kolektiboko partaidea da, eta bertako ki-

deekin taularatu ditu aktore zein zuzendari gisa *Txolarte, Hugo, nor dada Emmy?, Zanbuia!, Miss Karaoke, Poza, Su izan nahi, Salto* eta *Zertarako hegoak* lanak, besteak beste. Metrokoadrokarekin performancea, poesia fisikoa eta umore absurdoa landu ditu batez ere. Kode horietan oinarrituta, *Tartean dauden gorputzak* ikastaroa ematen jardun da azken urteetan, Javier Barandiaranekin batera.

*L'Alakran (Cromlech), Dejabu* panpin laborategia (*Gure bide galduak, Arrastoak*), *Anakrusa (Tempus-i)*, Kamikaz kolektiboa (*Käffka, Panpina*), *Rouge Elea (Ceci est la couleur de mes rêves/Hau da nire ametsen kolorea)* eta *Beheko Lorraine (Bidaietaz)* taldeekin kolaboratu du, eta *Gabrielen lekua* eta *Nola belztu behar zuria* (Bide Ertzean taldearekin batera) emanaldi hibridoetako kide izan da.

Antzerki eta literatura arloko sari ugari jaso ditu, azken biak 2018an: Cafe Bar Bilbao antzerki labur saria *Ero, ia lanagatik*, eta Donostia Hiria Literatur Saria antzerki arloan *Aire ikusezina lanagatik*.

## **Metrokoadroka Sormen Laborategia (2008, Oiartzun–Orereta)**

Metrokoadroka hainbat arte diziplinatan dabiltzan hamaika lagunek osatu dugun kolektiboa da, helburu honekin jaioa: hala arte eszenikoetan nola arte plastikoetan sor daitezkeen proiektuak sortzea, laguntzea eta zabaltzea, betiere kulturarekiko ikuspegi kritikoari eta esperimentazioari lehentasuna emanaz. Diziplina artistiko ezberdinek uztartzea da esperimentazio horren oinarri nagusietako bat.

Arte plastikoei dagokienez, 2014an Oiartzunen zabaldutako *Ehuntze* izeneko sormen espazioaren baitan gauzatzen dugu hainbat proiektu (sormen klaseak, mikro-errezitaldiak, arte azoka, 21 aulki arte zikloa...).

Arte eszenikoei dagokienez, performancea, diziplinartekotasuna, poesia fisiko-bisuala eta *site specific* erako proiektuak izan dira nagusi gure ibilbidean. Hauek izan dira gure azken lanak:

*Andrezaharraren manifestua (2020–2021)*, *Txolarte (2020, Site specific)*, *Aldarri (2019, Site specific)*, *Zauri Bolodia (2019, Site specific)*, *Munduko poesia kaia (2019)*, *Hugo, nor dada Emmy? (2019, performance)*, *Zanbuia! (2018, Site specific)*, *Miss Karaoke (Pez Limbo konpainiarekin elkarlanean)*, *Mr. Señora (2016–2018)*, *Hautudeterminazioa (2015)*, *Nola belztu behar zuria (2014–2016)*, *Bide Ertzean taldearekin elkarlanean*, *Su izan nahi (2015–2016)*, *Salto (2014–2015)*, *Zertarako hegoak (2013–2015)*, *Berria egunkariarekin elkarlanean*, *Poza (2012–2014)* eta *Hura ez da lekua (2011–2012)*.